

Errepide istripuen kontrako prebentzio kanpaina abiatuko dute Iparraldean

Alkohola eta abiadura kontrolatuko dituzte, heriotza gehien eragiten dutenak baitira

Hur Gorostiaga / Baiona

Heldu diren asteetan errepidean izan ohi diren istripuen prebentziorako kanpaina egingen dutela adierazi zuen atzo Estatu-ko ordezkari Jean François Pages suprefetak, Iparraldeko polizia arduradunak alboan zituela. Alkohola eta abiadura izanen dira jomuga nagusi.

ABIADURA, alkoholemia eta errepide arauak ez errespetatzea dira gaur egun Ipar Euskal Herriko errepideetan gertatu ohi diren istripuen zio nagusiak. Azken bost urteetan istripu kopurua beheratu bada ere, joan den urtean gorakada nabarmena (%19,3 gehiago) ukan zutela azpimarratu zuen atzo Jean François Pages suprefetak.

Iaz Pirinio Atlantikoetan 71 pertsona zendu ziren errepideetan, horietatik 29 Baiona, Angelu eta Miarritzeko errepideetan soilik. 29 heriotza horien istripuen %62 alkoholagatik izan ziren eta %20 abiadura handiegia eramateagatik. Horrez gain, heriotza eragin duten istripuen %60 asteburuetan gertatu izan dira, eta 18-25 urteko gazteak bereziki ukitu ditu.

Datu horiek Frantziako eskualdeekin eta bereziki auzoko Landesetako eskualdearekin konparatuz «anitzez apalago» ageri badira ere, hainbat ataletan oinarritutako kanpainaren beharra azpimarratu zuten atzo.

Alkoholari dagokionez, Ipar Euskal Herrian egunero 70 gidari dituzte Jendarmeria zerbitzuek kontrolatzen. Urte osoan, berriaz, 80.000 kontrol egiten ditu Jendarmeriak departamenduan.

Alkoholari buruzko zainketa hurbiletik segituko badute ere, abiaduraren kontrolak neurri bereziak ekarriko ditu, bereziki urbanizazio inguruetan. Gisa berean, errepide arauak buruzko informazio zabala hedatuko dute. Azkenik, bi gurpileko ibilgailuei buruzko kanpaina berezi bat egingen dute. Izan ere, hiriguneetan istripuak ukan dituztenetatik %45 motoak izan dira, eta zauritu larrien %2,5 izan dira.

Petillot Jendarmeriako buruaren arabera, «Iparraldeko errepide sarean ez dago



BOB EDMÉ

Abiadura eta alkohola dira Ipar Euskal Herriko errepideetan istripu gehien eragiten dituzten faktoreak.

puntu beltzik». Azken urteotan Baionatik Kanborako bidea ageri zen puntu beltz gisa, baina azken konponketek hobetu dute trafikoaren egoera. Haatik, leku zail bat gelditzen da oraino bide horretan, Larresoroko irteerak, eta jadanik zenbait aldaketa aurreikusiak direla adierazi zuen. Oro har, istripu gehien izaten diren tartea arratsaldeko seietaatik gaueko bederatziak bitartean izan ohi da, bereziki asteburuetan.

Zigortzeari dagokionez, geroz eta gehiago zigorraren ordezkari ikastaroak ezartzen dituztela adierazi zuen Jean Jacques Bosc prokuradoreak, batez ere gazteenei begira.

Autobidea arriskuz beterik

Zorionez, orain arte istripu larriak ez badugu ere, Baionatik Biriatura doan A63 autopista «une oroko arriskupean» dagoela azaldu zuen

Jendarmeriako buruak. Izan ere, kamioilariak ez omen dute indarrean dagoen legea inolaz ere errespetatzen. Gidatze tenoreak eta abiadurak etengabe gaindituak dira. Isun eta zigor neurriak badi- ra ere, «itsasoa urez hustu nahi izatea bezala» dela ohar- tarazi zuen Jean Jacques Boscek.

Kamioien arazoa Euskal Autonomia Erkidegoan festa den egunetan areagotzen dela ohar-tarazi zuen Page- sek.

Askatasun sexualaren aldeko mozioa aurkeztuko dute Iruñeko udalbatzarrean

■ Egizanek antisorgailuak saltzen ez dituzten farmaziak salatu nahi ditu horrela

Alberto Barandiaran / Iruñea

NAFARROAKO talde feministek mozio bat aurkeztuko dute bihar Iruñeko udalbatzarrean, antisorgailuak saltzen ez dituzten farmazien jarrera publikoki salatzeke. Horrekin batera, askatasun sexualaren aldeko hainbat neurri proposatzen ditu Egizan, Lumatxa, Ehgam, Ihesaren Aurkako Hiritar Batzordea, Andrea, Mandragora eta Emakume Internazionalistek sinatu eta Iruñeko udal talde guztiei bidali zaien proposamenak.

Duela hainbat hilabete salatu zituen Egizanek Iruñerriko dozena erdi farmaziatan ez direla antisorgailuak saltzen eta beste batzuetan trabak jartzen dituztela. Orain, jarrera horiek salatu eta kontra egiteko mobilizazioetara deituko dute hurrengo egunetan aipatu taldeek. Atzo Egizanek emaniko prentsaurrekoan salatu zuen «askatasun sexualaren aurkako jarrera», eta Opus Deiren «ideologiar-ekin» lotu zuen.

Farmaziak publikoki salatzea

Bihar aurkeztuko den mozioan aipatu taldeek farmazien jarrera publikoki salatzea, antisorgailuen salmenta derrigortzea eta udal zentroetan antisorgailuak salduko dituzten makinak ipintzea eskatu-ko du.